

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN IBILGAILU PARKEAREN ENERGIA EKINTZA PLAN ESPEZIFIKOA 2024-2030

Posted on 05/03/2025 by Naider

Bizkaiko Foru Aldundiak, bere Ibilgailu Parke Atalaren bitartez, 2030erako horizontearekin Energia Ekintza Plan Espezifiko baten prestaketa jarri du martxan. Ekimen hau Administrazio Publikoen Energia Iraunkortasun Legean ezarritako konpromisoen parte da, eta Aldundiaren Energia Ekintza Plan Orokorrari jarraipena ematen dio, unitate bakoitzak bere bide-orri propioa izan dezan trantsizio energetikoan aurrera egiteko.

Naiderekin laguntza tekniko osoa eskaintzen du prozesu honetan, 2016tik aurrerako kontsumoen eta ibilgailuen emisioen azterketa xehea, denbora errealean datuak erakutsiko dituen behatoki digital baten sorrera eta 2030era begirako diagnostiko estrategikoa uztartuz. Horrez gain, planaren bide-orria diseinatu dugu, ekintza-lerroak, proiektuak, jarraipen-adierazleak eta eragileen arteko koordinazioa bermatuko duen gobernantza eredua zehaztuz.

Emaitza sendoa eta operatiboa den plan bat da, Foru Aldundiari bere flota deskarbonizazioan modu erabakigarrian aurrera egiten lagunduko diona, baliabide energetikoen kudeaketa optimizatuz eta jarraipenerako tresna garden eta dinamiko bat eskainiz. Lan honekin, Bizkaiak bere konpromisoa sendotzen du trantsizio energetikoarekin eta tokiko zein eskualdeko beste administrazioentzat erreferente izan daitekeen ekimen aitzindari bat aurkezten du.

